1.2. Era berean, urbanizazio proiektuak 2021.eko urtarrilaren 7.an Uren Ustiapen eta Saneamendu Zerbitzuak ezarritako baldintzak bete beharko ditu

1.2 Así mismo el citado proyecto de urbanización cumplirá con las condiciones marcadas en el informe de fecha 7 de enero de 2021 del Servicio de Explotación de Agua y Saneamiento.

2. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 89. artikuluak agintzen duena bete eta planaren Hirigintza Arauak argitaratzea.

2.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 89 de la Ley 2/2006 de 30 de junio de Suelo y Urbanismo, proceder a la publicación de las Normas Urbanísticas del Plan.

Udalbatzak onar dezan proposatua, Donostian, 2021.ko martxoaren 2.an.

Lo proponen para su adopción por el Pleno Municipal en San Sebastián a 2 de marzo de 2021

HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDU ETA EXEKUZIOKO ZERBITZU BURUA /
EL JEFE DEL SERVICIO JURÍDICO ADMINISTRATIVO DE ORDENACIÓN Y EJECUCIÓN
Izpta. / Fdo.: Jon Mikel Garagarza Roteta

HIRIGINTZA JASANGARRIRAKO ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE URBANISMO SOSTENIBLE
Sin. / Fdo.: Juan Antonio Chavarri Sarasua

HIRIGINTZA SOSTENGARRIRAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
EL CONCEJAL DELEGADO DE URBANISMO SOSTENIBLE
Sin. / Fdo.: Miren Nekane Arzallus Iturriza”

Eztabaida hasita, Nekane Arzallus Iturriza andreak, Haizea Garay Gallastegui andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Ricardo Burutaran Ferre jaunak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las/los señoras/es D.ª Nekane Arzallus Iturriza, D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Borja Corominas Fisas y D. Ricardo Burutaran Ferré, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**QUORUMA.**
**ALDEKO BOTOAK: 23 – (10) EAJ/PNV, (5)**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**QUORUM.**
**VOTOS A FAVOR: 23 – (10) EAJ/PNV, (5) EH**

**EH BILDU (5), PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA**
**ABSTENTZIOAK: 1 – EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**BILDU, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA**
**ABSTENCIONES: 1 – EH BILDU, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**8. Donostiako Hirigintza ondare eraikia babesteko Plan Bereziaren Errebisioaren behin betiko onarpena.**

“UDALBATZARI

Indarrean dagoen Donostiako Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Berezia behin betikoz onartu zen Udalbatzan 2014.ko otsailaren 27an.

2018.ko uztailaren 19an ospatutako Udalbatzan, behin betikoz onartzea erabaki zen “Donostiako Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren Aldaketa”, katalogoan 47 elementu berriak sartuz. Aipatuko espedientea jendaurrean egon zen epean, alegazio ezberdinak aurkeztu ziren, bertan, katalogoan eraikin eta elementu ezberdin asko sartzeko eskaerak zeuden, haien babesa eskatuz.

Horren arabera, 2018.ko abuztuaren 30an Hirigintza Sostengarrirako, Etxebizitzako eta Hiri Proiektuetarako Zinegotzi Eskuordedunak luzatutako ebazpenean, Donostiako Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren errebisioa idazteko lanak Luis Sesé Madrazoi esleitzea erabaki zuen.

Lan horren aurreko azterketan oinarrituz, Tokiko Gobernu Batzordeak, 2018.ko abenduaren 18.an, honako akordio hau hartu

**8. Aprobación definitiva de la Revisión del Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbanístico Construido (PEPPUC).**

“AL AYUNTAMIENTO PLENO

El Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbanístico Construido de San Sebastián vigente es el aprobado definitivamente por acuerdo del Ayuntamiento Pleno de 27 de febrero de 2014.

Mediante sesión plenaria celebrada el 19 de julio de 2018, se acordó aprobar definitivamente la “Modificación del Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbanístico Construido de Donostia/San Sebastián”, incluyendo en el catálogo 47 nuevos elementos. En el período de información pública de dicho documento, se presentaron diversas alegaciones en las que se solicitaba inclusión de un número importante de edificios y otros elementos, dentro del catálogo del Plan para su correspondiente protección.

En vista de ello, con fecha 30 de agosto de 2018, el Concejal Delegado de Urbanismo Sostenible, Vivienda y Proyectos de la Ciudad resuelve adjudicar a Luis Sesé Madrazo los trabajos de redacción de la “Revisión del Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbanístico Construido de Donostia/San Sebastián”.

Sobre la base del análisis previo de ese trabajo, la Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 18 de diciembre de 2018, adoptó el siguiente

zuen:

“1.- Erabaki honekin batera doan 2018.ko azaroaren 5.eko zerrendan dauden elementuen gaineko eraispen lizentziak etentzea.

Kontutan eduki behar da C graduko eraikinetan indarrean dagoen H.O.E.B.P.B. aurreikusitako berrikuntza lanak eta esku hartze berdinak onartzen direla.”

H.O.E.B.P.B.ra elementi berriak sartzeko eta haren errebisioa izapidetzeko, 2020.ko maiatzako datarekin dokumentu bat aurkezten da. Aurkeztutako dokumentuak berrikuspen metodologia azaltzen du, erabilitako baliabideak eta hautatzeko irizpideak. Katalogoa babes-graduen arabera antolatuta dago, eta horien barruan bere kokapenaren alfabeto-ordenaren arabera. Elementu hauek babestu behar dira: Hiribilduak, etxe-uharteetako bizitegi-eraikinak, eraikin erlijiosoak, espazio irekietako eraikuntzak, baserriak, gotorlekuak eta bestelako elementu arkeologikoak eta atariak.

Zirriborro-dokumentu horretan oinarrituz, 2019.ko urriaren 4an Ingurumen - Ebaluazio estrategiko sinplifikatua hasi zen, eragindako Administrazio Publikoei eta pertsona interesatuei egin beharreko kontsultak eginez. Espediente zenbakia EAES-273 da.

Aipatutako prozedura 2020.ko urtarrilaren 17.ko Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendariaren ebazpenaren bidez amaitzen da, bertan, ez duela eragin garrantzitsurik izango ingurumenean eta, beraz, ez dela ingurumen - ebaluazio estrategiko arruntik egin behar esaten da. Ebazpen hau 2020.ko otsailaren 13.ako Euskal herriko Aldizkari Ofizialean argitaratzen da.

acuerdo:

“1.- Suspender las licencias de derribo integral sobre los elementos contenidos en el listado fechado el 5 de noviembre de 2018 y que se adjunta al presente acuerdo.

Señalar que se permiten las reformas o intervenciones iguales a las determinadas en el P.E.P.P.U.C. vigente para los edificios integrados en el grado C de protección.”

Con el objetivo de incorporar nuevos elementos al P.E.P.P.U.C. y tramitar la revisión del mismo, se presenta un documento fechado en mayo de 2020. El documento presentado explica la metodología de revisión, los recursos utilizados y los criterios de selección. El catálogo está organizado por grados de protección y dentro de ellos por orden alfabético de su emplazamiento. Los elementos a proteger son: Villas, edificios residenciales en manzanas, edificios religiosos, construcciones en espacios abiertos, caseríos, fortificaciones y otros elementos arqueológicos y portales.

Sobre la base del documento-borrador citado, con fecha 4 de octubre de 2019 se inició el procedimiento de evaluación ambiental estratégica simplificada, iniciando la fase de consultas a las Administraciones Públicas afectadas y a las personas afectadas. El expediente es el EAES-273.

Dicho procedimiento culmina con la Resolución de 17 de enero de 2020 del Director de Administración Ambiental del Gobierno Vasco, por la que se formula el informe ambiental estratégico, determinando que no se prevé que vaya a producir efectos adversos significativos sobre el medio ambiente y por tanto, no debe de someterse a evaluación ambiental estratégica ordinaria. Esta resolución se publica en el Boletín

Oficial del País Vasco de fecha 13 de febrero de 2020.

Azkenik, hasierako onespenerako aurkeztu den dokumentua Donostiako Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren Berrikustea deitutakoa, dagoeneko katalogatuta dauden elementuen multzoa biltzen duena - kasu batzuetan, babes-maila aldatzea planteatuz - eta katalogoan sartzeko proposatutako elementu berriak.

Finalmente, el documento que se presenta para su aprobación inicial es el denominado Revisión del Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbanístico Construido de San Sebastián, que abarca el conjunto de elementos ya catalogados – planteando en algún caso la modificación de su grado de protección – y los nuevos elementos propuestos para su incorporación al catálogo.

Dokumentuaren ebaluazio sozio-linguistikoa egin da, 2019.ko urriaren 24.an Euskerako Zerbitzuak idatzitako txostena espedientea sartuz. Bestalde, Euskarako Zerbitzuak 2020.ko urtarrilaren 9.ko txostena idazten du, bertan, arauzko formak emanez.

Se ha procedido a realizar la evaluación socio-lingüística del documento, constando informe del Servicio de Euskara fechado el 24 de octubre de 2019. Por otra parte, el Servicio de Euskara aporta informe de fecha 9 de enero de 2020 sobre la toponimia normativa.

Generoaren araberako ebaluazioa ere egin da. Berdintasun Atalaren 2020.ko urtarrilaren 31.an sinatutako egiaztatzen txostena dago.

También se ha realizado la evaluación de impacto de género. Consta informe de verificación fechado el 31 de enero de 2020.

Tokiko Gobernu batzordeak, 2020.ko otsailaren 4.an, honako akordio hau onartu zuen:

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 4 de febrero de 2020, adoptó el siguiente acuerdo:

“1. Hasiera batean onartzea Donostiako Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren Berrikuspena.

Behin betiko onespenerako, kontuan hartuko dira espedienteko txostenetan ezarritako baldintzak.

2. Bi hilabetetan jartzea ikusgai dokumentua, bai eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari hari buruzko txostena eskatzea ere.

3. Gehienez ere urtebeteko epean, elementu bakoitzerako baimentzen diren eraikuntza-eskuhartzeen aurkako onarpen, baimen eta lizentzia guztiak bertan behera uztea, haien babes-maila orokorraren eta berrikuspen

“1º.- Aprobar inicialmente la Revisión del Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbanístico Construido de San Sebastián.

De cara a la aprobación definitiva se tendrán en cuenta las condiciones impuestas en los informes obrantes en el expediente.

2º.- Someter dicho documento a información pública por plazo de dos meses y a informe del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

3º.- Suspender por el plazo máximo de un año el otorgamiento de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias que contravengan las intervenciones constructivas autorizables para cada elemento en función de su grado de

honetako dagokion fitxa partikularrean jasotako babes-erregimen espezifiko eta xehatuaren arabera, erabaki honekin batera doan eranskinaren arabera.”

Jendaurrean egon den epean, honako alegazio hauek aurkeztu dira:

1. Okendotegi 153.ko bizilagunak
2. Agustín Michelena Pelaez.
3. Mayr Alcaine Zapata.
4. Carolina Busca Cuesta.
5. José Manuel López Asensio
6. Iñigo Lizari
7. Mikel Iriondo eta besteak.
8. Carlos Valverde.
9. Antxon Garicano Arrillaga
10. Jose Maria Abad Urruzola
11. Iñigo Echeverria.
12. San Bartolomé Muinoa, S.A.
13. Dª Inés Soroeta erme 2002, S.L. ordezkaritzan
14. Berme 2007 S.L.
15. Gipuzkoako Merkatal Federazioa.
16. Sociedad Anónima Deportes y Espectaculos (SADE)
17. Jose Francisco de Assas Yagues
18. Compañia Servicios Sociales San Ignacio SA
19. Iñaki Begiristain Mitxelena
20. Gipuzkoako Foru Aldundia
21. Francisco Jose de Assas Yagues
22. CPES ORTZADAR BHIP (Villa Matilde)
23. Fernando Cid Monreal
24. Maria Etxeburua Beldarrain
25. Arantxa Lopez Simon y 15 mas
26. Juan Martin Garcia
27. Asociación Ancora
28. Ainhoa Ibarreche Solano
29. Construcciones Lantegui SA
30. Maria Rosa Asuero Alonso
31. Construcciones LANTEGUI
32. Diputación Foral Gipuzkoa



protección general y del régimen de protección específico y pormenorizado reflejado en la ficha particular correspondiente de la presente revisión, de acuerdo con el anexo que acompaña al presente acuerdo.”

Durante el plazo de exposición pública se han presentado las siguientes alegaciones

1. Vecinos Okendotegi 153.
2. Agustín Michelena Pelaez.
3. Mayr Alcaine Zapata.
4. Carolina Busca Cuesta.
5. José Manuel López Asensio
6. Iñigo Lizari
7. Mikel Iriondo y otros.
8. Carlos Valverde.
9. Antxon Garicano Arrillaga
10. Jose Maria Abad Urruzola
11. Iñigo Echeverria.
12. San Bartolomé Muinoa, S.A.
13. Dª Inés Soroeta en representación de Berme 2002, S.L..
14. Berme 2007 S.L.
15. Federación Mercantil de Gipuzkoa
16. Sociedad Anónima Deportes y Espectaculos (SADE)
17. Jose Francisco de Assas Yagues
18. Compañia Servicios Sociales San Ignacio SA
19. Iñaki Begiristain Mitxelena
20. Gipuzkoako Foru Aldundia
21. Francisco Jose de Assas Yagues
22. CPES ORTZADAR BHIP (Villa Matilde)
23. Fernando Cid Monreal
24. Maria Etxeburua Beldarrain
25. Arantxa Lopez Simon y 15 mas
26. Juan Martin Garcia
27. Asociación Ancora
28. Ainhoa Ibarreche Solano
29. Construcciones Lantegui SA
30. Maria Rosa Asuero Alonso
31. Construcciones LANTEGUI
32. Diputación Foral Gipuzkoa

33. ICOMOS-ESPAÑA.
34. Juan Carlos Echeverria Domínguez eta besteak.

Dokumentua idatzi duen taldeak sinatu (2021.eko otsaileko dokumentua) eta udal arkitektoak (2021.eko martxoaren 2.an) berretsi eta abalatutako alegazio txostenarekin bat, bidezkoa da alegazioak erabat ezestea, aipatu txostenean aipatzen diren baiespen partzialak izan ezik. Txosten horiek erabaki honen arrazoitzat hartuko dira eta erabaki honen banakako jakinarazpenari erantsiko zaizkio.

Espedientean behin betiko onarpenerako beharrezkoak diren txosten sektorial guztiak daude.

2020.ko apirilaren 29.an. Hirigintza eta Lurzoruaren 2006/2 Legearen 97. artikulak eskatutako Kultura Saileko txostena lortu da.

Horiek horrela, behin betiko onets dadin Donostiako Hirigintza Ondare Eraikia babesteko Plan Bereziaren Berrikuspen dokumentua aurkezten da, 2021.ko otsaileko datarekin.

Dokumentuari buruz honako txosten hauek idatzi dira:

*Arkitektura: 2021.eko martxoaren 2.an.

*Juridikoa: 2021.eko marxoaren 1.an.

Horrenbestez, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 97. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu, eta behin betiko onarpena ematea dagokio.

Horiek horrela direla, Toki

33. ICOMOS-ESPAÑA
34. Juan Carlos Echeverria Domínguez y otros.

De acuerdo con el informe de alegaciones firmado por el equipo redactor del documento (documento de febrero de 2021), y confirmado y avalado por el arquitecto municipal en fecha de 2 de marzo de 2021, procede la desestimación total de las alegaciones, salvo las estimaciones parciales referidas en el citado informe. Dichos informes servirán de motivación al presente acuerdo y se adjuntarán a la notificación individual del presente acuerdo.

Constan en el expediente todos los informes sectoriales necesarios para su aprobación definitiva.

Con fecha 29 de abril de 2020 se ha recabado el informe del Departamento de Cultura previsto en el artículo 97 de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo.

Fruto de todo lo anteriormente expuesto, se presenta para su aprobación definitiva el documento de Revisión del Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbanístico de San Sebastián, fechado en febrero de 2021.

El documento ha sido objeto de los siguientes informes:

*Arquitectura: 2 de marzo de 2021.

*Jurídico: 1 de marzo de 2021.

Procede en consecuencia, de conformidad con lo establecido en el artículo 97 de la Ley 2/2006 de 30 de junio de Suelo y Urbanismo, su aprobación definitiva.

Visto cuanto antecede y, de conformidad con lo

AraubidearenOinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 123 i) artikuluak agintzenduena aintzakotzat hartu eta Donostiako Udalbatzak

E R A B A K I  D U

1º.- Erabaki honen azalpen aldean aipatutako txostenak aintzat hartuz, ezetsi egiten dira aurkeztutako alegazio guztiak, era partzialean onartzen direnak izan ezik.

Erabaki hau banan-banan jakinaraziko zaie alegazioak aurkeztu dituzten pertsona guztiei, eta kasuan kasuko erabakia arrazoitzeko erabilitako txostenak erantsiko dira.

2.- Behin betikoz onartzea Donostiako Hirigintza Ondare Eraikia Babesteko Plan Bereziaren Berrikuspena.

3.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89. artikuluak agindutakoa aintzakotzat hartu eta planaren hirigintza-arauak argitaratzea.

Udalbatzak onar dezan proposatua, Donostian, 2021.ko martxoaren 2.an.

dispuesto en el artículo 123 i) de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, el Pleno de este Ayuntamiento

A C U E R D A

1º.- De acuerdo con los informes citados en la parte expositiva de este acuerdo, se desestiman en su integridad las alegaciones presentadas, salvo las que se estiman parcialmente.

Se notificará individualmente a cada alegante el presente acuerdo, adjuntando como motivación los informes correspondientes.

2º.- Aprobar definitivamente la Revisión del Plan Especial de Protección del Patrimonio Urbanístico Construido de San Sebastián.

3º.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 89 de la Ley 2/2006 de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, proceder a la publicación de las Normas Urbanísticas del Plan.

Lo proponen para su adopción por el Pleno Municipal en San Sebastián a 2 de marzo de 2021

HIRIGINTZAKO ANTOLAMENDU ETA EXEKUZIOKO ZERBITZU BURUA /
EL JEFE DEL SERVICIO JURÍDICO ADMINISTRATIVO DE ORDENACIÓN Y EJECUCIÓN
Izpta. / Fdo.: Jon Mikel Garagarza Roteta

Sin. / Fdo.: HIRIGINTZA JASANGARRIRAKO ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE URBANISMO SOSTENIBLE
Sin. / Fdo.: Juan Antonio Chavarri Sarasua

HIRIGINTZA SOSTENGARRIRAKO ETA ETXEBIZITZAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
LA CONCEJALA DELEGADA DE URBANISMO SOSTENIBLE Y VIVIENDA
Sin. / Fdo.: Miren Nekane Arzallus Iturriza”

Eztabaida hasita, Nekane Arzallus Iturriza andreak, Marisol Garmendia Beloqui andreak, Haizea Garay Gallastegui andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Ricardo Burutaran Ferre jaunak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las/los señoras/es D.ª Nekane Arzallus Iturriza, D.ª Marisol Garmendia Beloqui, D.ª Haizea Garay Gallastegui, D. Borja Corominas Fisas y D. Ricardo Burutaran Ferré, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA MULTZOKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR BLOQUES:**

**LEHEN MULTZOAREN BOZKETA: ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAREN ZUZENKETAK: 2., 3., 8., 13.,, 14., 17., 18., 19., 20., 21., 22., ETA PP TALDEAREN ZUZENKETAK: 1., 2., 3., 4., 5., 6., 7., 8., ETA 9.**

**VOTACION DEL PRIMER BLOQUE: ENMIENDAS DEL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA: Nº2, Nº3, Nº8, Nº13, Nº14, Nº17, Nº18, Nº19, Nº20, Nº21, Nº22. Y ENMIENDAS DEL GRUPO PP: Nº1, Nº2, Nº3, Nº4, Nº5, Nº6, Nº7, Nº8 Y Nº9.**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 6 – (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 6 - EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 6 – (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 6 - EH BILDU.**

**BIGARREN MULTZOAREN BOZKETA: ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAREN ZUZENKETA: 9. ETA EH BILDU TALDEAREN ZUZENKETAK: 1., 4., 5., 6., 7., 9., 10., 11., 12., ETA 13.**

**VOTACION DEL SEGUNDO BLOQUE: ENMIENDA DEL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA: Nº9 Y ENMIENDAS DEL GRUPO EH BILDU: Nº1, Nº4, Nº5, Nº6, Nº7, Nº9, Nº10, Nº11, Nº12 Y Nº13.**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5)**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5)**

PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 0

PSE-EE.
ABSTENCIONES: 0

ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAREN 4. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 4 DEL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA.

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 3 - ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 6 - EH BILDU.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 3 - ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENCIONES: 6 - EH BILDU.

ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAREN 7. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 7 DEL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA.

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 3 – PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 3 – PP.

ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAREN 12. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 12 DEL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA.

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 3 - ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 24 – (10) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 0

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 3 - ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 24 – (10) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENCIONES: 0

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAREN 16. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 16 DEL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 - ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 21 – (10) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 - ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 21 – (10) EAJ/PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

**EH BILDU TALDEAREN 2. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 2 DEL GRUPO EH BILDU.**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 6 - EH BILDU.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 3 - ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 6 - EH BILDU.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 3 - ELKARREKIN DONOSTIA.**

**EH BILDU TALDEAREN 3. ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 3 DEL GRUPO EH BILDU.**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 - (6) EH BILDU, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 - ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 - (6) EH BILDU, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 - ELKARREKIN DONOSTIA.**

**HURRENGO ZUZENKETAK EZ DIRA ONARTUAK IZAN: EH BILDU TALDEAREN 8. ZUZENKETA ETA ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAREN 1., 5., 6., 11., ETA 15. ZUZENKETAK. / HAN SIDO INADMITIDAS LAS SIGUIENTES ENMIENDAS: ENMIENDA Nº8 DEL GRUPO EH BILDU Y ENMIENDAS Nº1, Nº5, Nº6, Nº11 Y Nº15 DEL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA.**

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK EZ DU 10. ZUZENKETARIK, ZENBATZE AKATSA DELA ETA. / EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA NO TIENE ENMIENDA Nº10 POR ERROR EN LA NUMERACIÓN DE ENMIENDAS.**

**8. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA**
**ABSTENTZIOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – ELKARREKIN DONOSTIA**
**ABSTENCIONES: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.**

---------------

**ZERBITZU OROKORREN BATZORDEA**

**COMISIÓN DE SERVICIOS GENERALES**

**9. Sektore pribatuan bigarren lanpostu bat garatzeko bateraezintasuna.**

“UDALBATZARI

Karrerako funtzionario den XXXX, 2020ko Azaroak 25an aurkeztutako idatziaren bidez, sektore pribatuan autonomo moduan Marketing digital lanak egiteko bateragarritasuna ESKATZEN DU.

Arlo pribatuan marketing lanetan aritzea jarduera pribatutzat jo behar da. Herri

**9. Incompatibilidad para desarrollar un segundo puesto de trabajo en el sector privado.**

“AL AYUNTAMIENTO PLENO

El funcionario de carrera XXXX mediante escrito presentado el 25 de noviembre de 2020, SOLICITA compatibilidad para poder ejercer trabajos de marketing digital como autónomo en el ámbito privado.

El ejercicio de la profesión de marketing digital supone el ejercicio de una actividad privada. El

Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunen Araubideari buruzko 53/1984 Legeak, abenduaren 26koak, honela dio 14.1. artikuluan: “Herri administrazioetatik kanpo lanbide, lan, merkataritza edo industria arloko jardueraren bat egin nahi izanez gero, bateragarritasuna onartu behar da aurrez”.

Era berean, jarduera publiko eta pribatuei buruzko xedapen amankomunen artean, 16. artikuluak dio:

“1. 1. Estatutu honen 24. artikuluaren b) apartatuan adierazitako lansari osagarriek bateraezintasun faktorea jasotzen badute, muga zergaren bidez ordaintzen zaien langileei eta zuzendaritza pertsonalari, egoera berezia duen goi mailako zuzendaritzako lan harremana barne, ezin izango zaie bateragarritasuna onartu edo aitortu ez funtzionarioei, ez aldi baterako langileei, ezta lan kontratua duten langileei ere”.

1 Apartatu honen azken eguneratzea urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegintzakoaren bidez onetsitako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatuaren Legearen Testu bateginaren 3. azken xedapenaren bidez sartu zen, eta eragina izango du, Administrazio Publiko bakoitzean III. Tituluaren III. Kapitulua indarrean sartzen denean, Estatutu honen garapenean ematen diren Administrazio Publikoen Funtzio Publikoko Legeak onesten direnean, bere 4. azken xedapenaren arabera.

Oinarrizko Estatutuaren garatzen duen Funtzio Publikoaren Lege berririk ez denez onartu, indarrean jarraitzen du uztailaren 6ko 6/1989 Euskal Funtzio Publikoaren Legea, eta 16.1 aurreko idazkera aplikatu behar da:

“1. Muga zergaren bidez ordaintzen zaien langileei eta osagarri berezi edo parekagarria duten lanpostuak betetzen dituzten langileei

artículo 14.1 de la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del Personal al servicio de las Administraciones Públicas establece que “el ejercicio de actividades profesionales, laborales mercantiles o industriales fuera de las Administraciones Públicas requerirá el previo reconocimiento de compatibilidad.”

A su vez, en las disposiciones comunes a las actividades públicas y privadas, el artículo 16 establece:

“1. No podrá autorizarse o reconocerse compatibilidad al personal funcionario, al personal eventual y al personal laboral cuando las retribuciones complementarias que tengan derecho a percibir del apartado b) del artículo 24 del presente Estatuto incluyan el factor de incompatibilidad al retribuido por arancel y al personal directivo, incluido el sujeto a la relación laboral de carácter especial de alta dirección”.

Esta última actualización de este apartado 1 establecida por la Disposición Final Tercera del Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, producirá efectos en cada Administración Pública a partir de la entrada en vigor del capitulo III del Título III con la aprobación de las leyes de Función Pública de las Administraciones Públicas que se dicten en desarrollo de este Estatuto, según establece su disposición final 4.

Dado que sigue en vigor la Ley de la Función Pública Vasca 6/1989, de 6 de julio, al no haberse aprobado nueva ley de Función Pública en desarrollo del citado Estatuto Básico, resulta de aplicación la redacción anterior del artículo 16.1:

“No podrá autorizarse o reconocerse compatibilidad alguna al personal que desempeñe puestos que comporten la percepción de

ezin izango zaie bateragarritasuna onartu edo aitortu".

Bestalde, artikulu berberaren laugarren puntua salbuespen bat ezartzen du bateragarritasuna eskuratu ahal izateko: "...jarduera pribatuan aritzeko bateragarritasuna onartu ahal izango da, baldin eta betetzen duen lanpostuaren berariazko osagarria jasotzen duen oinarrizko lansariaren %30a gainditzen ez badu, antzinatasunagatiko kontzeptuak kontuan hartu gabe". Kasu honetan, eskatzaileak urteko 28.683,11 euroko berariazko osagarria dauka esleituta. Modu horretan, soberan gainditzen du legeak ezartzen duen oinarrizko soldatarekiko %30a (urteko 42.721,50 euro), eta ezin izango du jarduera pribatuan lan egiteko bateragarritasuna eskuratu.

Abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 14. artikuluak ezarritakoaren arabera, arlo pribatuan bigarren lanpostua betetzeko bateragarritasun baimena edo bateraezintasunaren aitorpena Udalbatzak eman beharko du.

Aurrean ezarritako guztia kontuan hartuz, egokitzat jotzen da Udalbatza honi ondoko akordioa hartzea proposatzea:

Karrerako funtzionarioa den XXXXri arlo pribatuan bigarren lanpostua betetzeko bateraezintasuna aitortzea, abenduaren 26ko Administrazio Publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasuna arautzen duen 53/1984 Legean ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.

complementos específicos o concepto equiparable, y al retribuido por arancel".

Por otro lado, en el apartado cuarto del mismo artículo se establece como excepción que "...podrá reconocerse compatibilidad para el ejercicio de actividades privadas al personal que desempeñe puestos de trabajo que comporten la percepción de complementos específicos, o concepto equiparable, cuya cuantía no supere el 30 por 100 de su retribución básica, excluidos los conceptos que tengan su origen en la antigüedad". El solicitante tiene asignado un complemento específico de 28.683,11 euros anuales, lo que supera ampliamente el límite de 30% establecido sobre el sueldo base (42.721,50 euros anuales) para poder obtener la compatibilidad entre la actividad pública y la privada.

De conformidad con lo dispuesto en el articulo 14 de la misma Ley 53/1984, de 26 de diciembre, la autorización de compatibilidad o declaración de incompatibilidad para un segundo puesto en el sector privado corresponde al Pleno de la Corporación Local.

Por cuanto antecede, se tiene a bien proponer al Excmo. Ayuntamiento Pleno, la adopción del siguiente acuerdo:

No reconocer la compatibilidad al funcionario de carrera XXXX para desarrollar un segundo puesto de trabajo en el sector privado como autónomo, por no cumplirse los requisitos establecidos en la Ley 53/1984, de 26 de diciembre, de Incompatibilidades del personal al servicio de las Administraciones Públicas.

Donostian, 2021eko otsailaren 17an.

GOBERNANTZAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
Sin.: Juan Ramón Viles Mitxelena

LANGILERIA KUDEATZEKO ETA ADMINISTRATZEKO ZERBITZUAREN BURUA
Sin.: Koro Gorriti Iparragirre"

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**
**ABSTENTZIOAK: 4 – (2) EH BILDU, (1) PP, (1) ELKARREKIN DONOSTIA, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD**
**ABSTENCIONES: 4 - (2) EH BILDU, (1) PP, (1) ELKARREKIN DONOSTIA, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**10. Proposamena, EH BILDU taldeak aurkeztua, Donostiako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko VI. Plangintzaren jarraipenerako batzorde ez iraunkorra sortzekoa.**

EH Bildu udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 90., 91. eta 148. artikuluak oinarri hartuta, Donostiako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko VI. Plangintzaren jarraipenari buruzko BATZORDE EZ IRAUNKORRA sortzeko PROPOSAMEN hau aurkezten du.

JUSTIFIKAZIOA

Euskararen erabilera Donostiako Udalean normalizatzeko VI. Plana (2018-2022) garatzen ari da. Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aplikazioaren bidez eta Plan Estrategikoan jasotako adierazleen arabera egingo dira. VI. plangintza aldiaren bukaeran, zuzendaritza bakoitzeko Erabilera Batzordeak ebaluazio txostena egingo du eta zuzendariak dagokion arduradun politikoari eta Batzorde Teknikoari horren berri emango die, jarraipena

**10. Proposición, presentada por el Grupo EH BILDU, para la creación de una Comisión No Permanente de seguimiento del VI Plan para la normalización del uso del Euskera en el Ayuntamiento.**

Reyes Carrere Zabala, portavoz del grupo municipal EH Bildu, en base a los artículos 90, 91 y 148 del Reglamento Orgánico del Pleno, presento esta PROPUESTA de creación de una COMISIÓN NO PERMANENTE para el seguimiento del VI. Plan de normalización del uso del euskara en el Ayuntamiento de San Sebastián.

JUSTIFICACIÓN

Se está desarrollando el 6º Plan de Normalización del uso del euskara en el Ayuntamiento de San Sebastián (2018-2022). El seguimiento y evaluación del Plan se realizará a través de la aplicación de la Viceconsejería de Política Lingüística y según los indicadores recogidos en el Plan Estratégico. Con el objetivo de hacer un seguimiento del plan, al finalizar el 6º periodo de planificación establecido, la Comisión de Uso de cada dirección hará un informe de evaluación y el director o directora correspondiente informará a las

egin dezaten. Euskara Zerbitzuaren eginkizuna izango da, zuzendaritza guztietako ebaluazioak kontuan hartuz, VI. plangintza aldiari dagokion Donostiako Udalaren ebaluazio txosten orokorra egitea.

y los responsables políticos y a la Comisión Técnica, para que puedan llevar a cabo el seguimiento. Será función del Servicio de Euskera, teniendo en cuenta las evaluaciones de todas las direcciones, realizar el informe general de evaluación del Ayuntamiento de San Sebastián correspondiente al 6º periodo de planificación.

Aipatu bi egitura horiek osaera eta eginkizun hauek dituzte:

Estas dos estructuras tienen la siguiente composición y funciones:

1. Hizkuntza Normalizazioaren Batzorde Teknikoan, Udal Gobernuko hainbat zinegotziz gain, Lehendakaritzako zuzendaria, Euskara Zerbitzua eta Udaleko langileen ordezkariak daude. Batzordearen egitekoa da Euskararen Erabilera Normalizatzeko planaren jarraipena egitea, hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideak betetzeko proposamenak egitea eta langileentzako euskara ikastaroen baldintzak aztertzea eta horien ezarpenari jarraipena egitea.

1. En la Comisión Técnica de Normalización Lingüística, además de varios concejales del Gobierno municipal, se encuentran el director de Presidencia, el Servicio de Euskera y la representación del personal del Ayuntamiento. La función de la Comisión es el seguimiento del Plan de Normalización del Uso del Euskera, la elaboración de propuestas para el cumplimiento de las pautas de uso de las lenguas oficiales y el análisis y seguimiento de la implantación de los cursos de euskara para la plantilla.

2. Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Batzordeetan, zuzendaria, langileak eta Euskara Zerbitzua daude. Batzordeek honako funtzio hauek dituzte: Plan Estrategikoa zuzendaritzara moldatzea, lehentasunak jarrita, eta ekintzak eta baliabideak zehaztuta; Planaren jarraipena egitea.

2. En las Comisiones de Uso de las Lenguas Oficiales se encuentran el director, el personal y el Servicio de Euskera. Las comisiones tienen las siguientes funciones: adecuación del Plan Estratégico a las direcciones, estableciendo las prioridades y definiendo las acciones y recursos; seguimiento del Plan.

Beraz, Donostiako Udalean euskararen erabilera normalizatzeko VI. Planaren jarraipena egiteko egituretan ez dute tokirik udal taldeek. Gure taldearen ustez, beharrezkoa da Udal Gobernua, Udaleko langileak eta udal talde politikook batera joatea euskararen erabilerak aurrera urrats esanguratsuak egin ditzan Donostiako Udalean.

Por lo tanto, los grupos municipales no tienen cabida en las estructuras de seguimiento del 6º Plan de normalización del uso del euskara en el Ayuntamiento de San Sebastián. En opinión de nuestro grupo, es necesario que el Gobierno municipal, el personal del Ayuntamiento y los grupos políticos municipales vayan de la mano para que el uso del euskara dé pasos significativos en el Ayuntamiento donostiarra.

Hain zuzen ere, agintaldi honetan, EH Bilduk hainbat proposamen egin ditu euskararen erabilera bizkortzeko gure udalean, hala nola,

De hecho, durante este mandato, EH Bildu ha realizado diversas propuestas para activar el uso del euskara en nuestro ayuntamiento, como la

plangintzan atal berria sortzea, Udalbatzari eta horri lotutako funtzionamendu osoa euskalduntzeari lotua; euskarazko atal gehiago izendatzea (gutxienez beste hiru atal); Udalak ematen dituen dirulaguntzetan jarraipen sistema bat ezartzea hizkuntza irizpideak betetzen direla ziurtatzeko; Planaren VI. Plangintzan jasota dauden eta lanpostuen hizkuntza eskakizunei dagozkien salbuespenak kentzea; udal dokumentazioa hasieratik euskaraz sortzea; edota udal markesinetan publizitatea gutxienez gaztelaniaz adina euskaraz jartzea.

creación de un nuevo apartado en el planeamiento, vinculado a la euskaldunización del Ayuntamiento Pleno y a la de todo el funcionamiento asociado; la designación de más secciones de euskara (al menos, otras tres secciones); el establecimiento de un sistema de seguimiento de las subvenciones que otorga el Ayuntamiento para asegurar el cumplimiento de los criterios lingüísticos; eliminar las exenciones a los perfiles lingüísticos de los puestos de trabajo recogidas en el VI Plan; crear la documentación municipal en euskara desde el inicio; o publicitar en las marquesinas municipales en euskara al menos tanto como en castellano.

Aipatu bezala, uste dugu beharrezkoa dela Udal Gobernua, Udaleko langileak eta udal talde politikook batera joatea langintza honetan. Horiek horrela, EH Bildu taldeak DONOSTIAKO UDALEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO VI. PLANGINTZAREN JARRAIPENARI BURUZKO BATZORDE EZ IRAUNKOR BAT SORTZEKO PROPOSAMEN hau egiten du.

Como hemos mencionado, creemos que es necesario que el Gobierno municipal, el personal del Ayuntamiento y los grupos políticos municipales vayan aunados en esta tarea. Así las cosas, el grupo EH Bildu realiza esta propuesta de creación de una Comisión no permanente de seguimiento del Plan de normalización del uso del euskara del Ayuntamiento de San Sebastián, 6º periodo de planificación (2018-2022).

- Helburua: Euskararen Erabilera Normalizatzeko planaren eta hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideen ezarpenei jarraipena egitea, eta ezarpen horiek bizkortzeko proposamenak egitea. Era berean, Udalbatzaren euskalduntzea lortzeko lan ildoaren diseinua egitea, eta horren ezarpenari jarraipena egitea, bete dadin bermatzeko eta hobekuntzak proposatzeko.

- Objeto: Seguimiento de la implantación del Plan de Normalización del Uso del Euskera y de las directrices de uso de las lenguas oficiales, así como realizar propuestas para impulsar la mencionada implantación. Asimismo, realizar el diseño de la línea de trabajo para lograr la euskaldunización de la Corporación y realizar el seguimiento de la implantación, para garantizar el cumplimiento y proponer mejoras.

- Osaera: udal talde bakoitzeko kide bat. Botoa haztatua izango da.

- Composición: un miembro de cada grupo municipal. El voto será ponderado.

- Iraupena: Euskararen Erabilera Normalizatzeko VI. Plangintzaren iraunaldia.

- Duración: La misma del VI Plan de Normalización del Uso del Euskara.

- Bileren araubidea: hiru hilean behin egingo da.

- Régimen de sesiones: una sesión realizará trimestral.

Donostia, 2021eko martxoaren 5ean

En San Sebastián, a 5 de marzo de 2021

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko bozeramailea”

Reyes Carrere Zabala,
portavoz del grupo municipal EH Bildu.

Eztabaida hasita, Zigor Etxeburua Urbizu jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak eta Jon Insausti Maisterrena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Zigor Etxeburua Urbizu, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi y D. Jon Insausti Maisterrena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0**

---------------

**II**

**INFORMAZIO, SUSTAPEN ETA KONTROLA**

**II**

**INFORMACIÓN, IMPULSO Y CONTROL**

**II.1**

**MOZIO ARRUNTAK**

**II.1**

**MOCIONES ORDINARIAS**

**11. Mozio arrunta, PP taldeak aurkeztua, Amarako Topo geltokiko aparkaleku-zerbitzuari buruzkoa.**

“Udal Talde Popularreko bozeramaile Borja Corominas Fisas naizen honek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluaren

**11. Moción ordinaria, presentada por el Grupo PP, sobre el servicio de aparcabicis de la estación del Topo de Amara.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Municipal Popular, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la

babespean, MOZIO ARRUNT hau aurkeztu dut.

JUSTIFIKAZIOA

Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailak 144 bizikletetarako aparkaleku estali bat egokitu zuen Easo plazako Euskotrenen geltokian. 2012ko irailean inauguratu zuten, eta Popoaren erabiltzaileentzat erreserbatuta zegoen. Jatorriz, donostiarrak geltokira bizikletaz iristea eta pedalei eraginda etxera itzultzea ahalbidetu behar zuen instalazio horrek: beste urrats bat bizikletaren eta trenaren arteko harremanak estutzeko bidean.

Euskotrenek ezarri zuenez, aparkatzeko gehienezko denbora 24 ordukoa zen, eta bizikletak uzteko eta kentzeko ordutegia Amarako Topoaren geltokiko bera izango zela, hau da, tren zirkulazioa zegoen bitartean. Trenaren erabiltzaileek beste inork ezin zuen erabili, eta, sartzeko, garraio titulu bat eraman eta baliozkotu beharra zegoen.

Baina errealitatea oso bestelakoa izan zen, eta bizikleta biltegi bihurtu zen aparkalekua, bai Topoaren erabiltzaileena bai ez zirenena.

2019ko udan, mantentze lanak egiteko eta erabilera arauak aldatzeko, aparkaleku horretan utzitako bizikletak, jabeek jaso ez zituztenak, Euskotrenen zerbitzuek kendu zituzten.

Gaur egun, bizikleta aparkalekua itxita dago. Instalazio hori alferrik galdua bezain gero eta beharrezkoagoa da, gure hirian gero eta bizikleta gehiago daudelako.

siguiente MOCIÓN ORDINARIA para su debate en el Pleno, sobre

JUSTIFICACIÓN

El Departamento de Transportes del Gobierno Vasco construyó un aparcamiento cubierto para 144 bicicletas en la estación de Euskotren de la plaza Easo que se inauguró en septiembre de 2012, reservado a los usuarios del Topo. Nació como una instalación que iba a facilitar que los donostiarras llegaran a la estación en bici y pudieran regresar a casa pedaleando: un paso más en la dirección de estrechar las relaciones entre la bici y el tren.

Euskotren estableció que el tiempo máximo de aparcamiento era de 24 horas y el horario para depositar y retirar las bicicletas fuera el mismo que el de la propia estación del Topo de Amara, es decir mientras hubiera circulación de trenes. La utilización estaba reservada a usuarios del tren y para acceder era necesario portar y validar un título de transporte.

Pero la realidad fue otra y el aparcamcamiento acabó convertido en un almacén de bicicletas, tanto de usuarios del topo como de los que no lo eran.

En verano de 2019, con el fin de modificar las normas de utilización y de realizar trabajos de mantenimiento, las bicicletas depositadas en dicho aparcabicis que no fueron recogidas por sus dueños, fueron retiradas por los servicios de Euskotren.

A día de hoy, el aparcabicis permanece cerrado, una instalación desaprovechada y cada vez más necesaria ante el incremento de bicicletas que existe en nuestra ciudad.

Hori dela eta, hauxe da Alderdi Popularra udal taldearen

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailari hertsatuki eskatzen dio behar den inbertsioa egin dezala Amarako Topoaren geltokiko (Easo kalea) aparkaleku zerbitzua egokitzeko eta erabilgarri jartzeko, denbora jakin baterako doako txandaketa sistema batez, hala, aparkatzeko doako epea amaitu bezain laster, ordaina eskatu ahal izateko.

Donostian, 2021eko martxoaren 5ean

Borja Corominas Fisas,
Udal Talde Popularraren bozeramailea."

Por todo lo expuesto, el grupo municipal del Partido Popular presenta la siguiente

MOCIÓN ORDINARIA

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Departamento de Transportes del Gobierno Vasco a realizar la inversión necesaria para adecentar y poner en marcha el servicio de aparcabicis de la estación del Topo de Amara, sita en la calle Easo, con un sistema de rotación gratuito durante un tiempo determinado y exija el cobro en cuanto finalice el periodo gratuito de aparcamiento.

San Sebastián, a 5 de marzo de 2021

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular".

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Marisol Garmendia Beloqui andreak, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak, Pilar Arana Perez andreak eta Marta Huarte Paño andreak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D. Borja Corominas Fisas, D.ª Marisol Garmendia Beloqui, D.ª Garbiñe Alkiza López de Samaniego, D.ª Pilar Arana Pérez y Dª. Marta Huarte Paño, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**ELKARREKIN DONOSTIA TALDEAK 11. GAIARI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA AL ASUNTO N.º 11 PRESENTADA POR EL GRUPO ELKARREKIN DONOSTIA:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**
**ABSTENTZIOAK: 16 – (10) EAJ-PNV, (6) EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.**
**ABSTENCIONES: 16 – (10) EAJ-PNV, (6) EH BILDU.**

**11. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 11:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**
**ABSTENTZIOAK: 16 – (10) EAJ-PNV, (6) EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.**
**ABSTENCIONES: 16 – (10) EAJ-PNV, (6) EH BILDU.**

--------------

**12. Mozio arrunta, EH BILDU taldeak aurkeztua, HAEE-IVAP erakundeak antolatu eta Donostiako udalari eskaintzen dizkion ikastaroen hizkuntza dela eta.**

“EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, HAEE-IVAP (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea) erakundeak antolatu eta Donostiako Udalari eskaintzen dizkion ikastaroen hizkuntza dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko hilean, Plangintza eta Garapen Sailak udal langile guztioi zabaldutako HAEE-IVAPen ikastaro baten harira, EH Bildu harremanetan jarri zen Donostiako Udaleko langileen ordezkariekin, horrelako ikastaroen hizkuntza kudeaketaz galdetzeko. Langileen ordezkariek jakinarazi zigutenez, ohikoa du HAEE-IVAPek ikastaroak gaztelania hutsez eskaintzea.
HAEE-IVAP erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikia. 16/1983 Legeak

**12. Moción ordinaria, presentada por el Grupo EH BILDU, por la lengua de los cursos organizados por el HAEE-IVAP y ofertados al Ayuntamiento de San Sebastián.**

“La portavoz del grupo municipal EH BILDU, Reyes Carrere Zabala, en base al artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN ORDINARIA, en relación al idioma de los cursos organizados por el IVAP (Instituto Vasco de Administración Pública), que son ofertados al Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián.

JUSTIFICACIÓN

El mes pasado, a consecuencia de un curso del IVAP ofrecido por el Departamento de Planificación y Desarrollo a toda la plantilla municipal, EH Bildu se puso en contacto con los representantes de los trabajadores y trabajadoras del Ayuntamiento de San Sebastián, para interesarse sobre la gestión lingüística de este tipo de cursos. Los representantes del personal nos informaron que es habitual que el IVAP ofertara cursos exclusivamente en castellano. El IVAP es un organismo autónomo

zehazten duenez, HAEE-IVAPen misioa da Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioekin lankidetzan aritzea, herritarrei zerbitzu efiziente, kalitatezko eta elebiduna emateko. Lankidetza hau zerbitzu publikoaren balio komunetan oinarritzen da, eta honako hauen bidez gauzatzen:

- Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen zerbitzurako langileak hautatu eta prestatu.
- Administrazioan euskararen erabileraren normalizazioa eta itzulpengintza ofiziala bultzatu, eta euskarazko terminologia juridiko administratiboa finkatu eta zabaldu.
- Hizkuntzaren, lege eta administrazioaren, eta kudeaketaren hobekuntzaren arloetan aholku eman eta ikertu.

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**5. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**5. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**

**ABSTENTZIOAK: 0.**

**ABSTENCIONES: 0.**

**5. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.6. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, publizitate instituzionala euskarazko hedabideetan berdintasunez agertzeari buruzkoa.**

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Zigor Etxeburua Urbizuk mozio hau aurkezten du Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri hartuta, Udalbatzan azter dadin. Mozioaren oinarria 2021eko martxoaren 15ean Zerbitzu Orokorren batzordean aztertutako interpelazioan dago.

JUSTIFIKAZIOA

Iazko urrian, Donostiako Udal Gobernuak hiriko euskarazko hedabideei ematen dizkien dirulaguntzetan murrizketa esanguratsuak egitea aurreikusten zuela jakindakoan, EH Bilduk iradokizun bat egin zion Udal Gobernuari Donostiako Udalaren publizitate instituzionala gutxienez erdarazko hedabideetan adina kontratatu dadin euskarazkoetan. Gainera, udal talde honek proposatu zuen neurri hori indarrean jartzea iradokizuna aurkeztu eta hurrengo hilabetetik aurrera, horretarako Komunikazio Sailaren protokoloetan txertatuta. Gobernantzako zinegotzi ordezkariak erantzun zuen kontuan hartuko zutela proposamena.

**II.2.6. Moción de control, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la presencia igualitaria de la publicidad institucional en los medios de comunicación en euskera.**

“Zigor Etxeburua Urbizu, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para que sea tratada en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Servicios Generales de 15 de marzo de 2021.

JUSTIFICACIÓN

En octubre del año pasado, al tener conocimiento que el Gobierno municipal de San Sebastián preveía recortes significativos en las subvenciones a los medios de comunicación en euskara de la ciudad, EH Bildu hizo una sugerencia a dicho gobierno para que la publicidad institucional del Ayuntamiento de San Sebastián se contratase en los medios de comunicación en euskara al menos tanto como en los medios de comunicación en castellano. Además, este grupo municipal propuso la entrada en vigor de esta medida a partir del mes siguiente a la presentación de la sugerencia, incorporándola para ello a los protocolos del

Departamento de Comunicación. El concejal delegado de Gobernanza respondió que iban a tomar en consideración la propuesta.

Euskarako zinegotzi ordezkariak ere adierazi zigun Udal Gobernuak zehaztua zuela, abuztuan, Hedabide Agentziaren kontratua berritzeko baldintza teknikoen agiria, Udalak martxan jartzen duen edozein komunikazio kanpaina euskarazko hedabideetan ere sartzeko derrigorrez. Honela dago zehaztuta: "Hiriko bi hizkuntza ofizialak kontuan harturik, publizitate espazioak euskarazko eta gaztelaniazko hedabideetan kontratatuko dira”.

El concejal delegado de Euskera también nos informó de que el Gobierno municipal había especificado, en agosto, en el pliego de condiciones técnicas para la renovación del contrato con la Agencia de Medios de Comunicación, que cualquier campaña de comunicación que el Ayuntamiento pusiera en marcha se insertara obligatoriamente también en los medios de comunicación en euskera. Concretamente, se estableció que teniendo en cuenta las dos lenguas oficiales de la ciudad, los espacios publicitarios se contratarán en los medios de comunicación que se publican en euskara y en los que se publican en castellano.

Otsailean eta martxoan, udal talde honek jarraipen txiki bat egin dio Udal Gobernuak adierazitako konpromiso horri, eta alderatu egin ditu erdarazko eta euskarazko idatzizko hedabideetan agertu diren Udalaren publizitate euskarriak: otsailaren 18an, hedabide bakarrean, erdal medioa berau, agertu zen Zuluaga jarduketa programaren hasierako onarpenaren iragarkia. Martxoaren 2an, Añorgako geltokirako plan bereziaren hasierako onarpenaren iragarkia erdarazko bi hedabidetan agertu zen soilik. Egun berean, egutegi fiskala hedabide bakarrean, erdal medioa berau, agertu zen. Horien argitara, Udal Gobernuak oraindik ez du ezarri iazko urrian adierazitako konpromisoa.

Durante los meses de febrero y marzo, este grupo municipal ha realizado un breve seguimiento del compromiso expresado por el Gobierno municipal, y ha comparado los soportes publicitarios del Ayuntamiento que han aparecido en los medios escritos en castellano y en euskera: el 18 de febrero, el anuncio de la aprobación inicial del programa de actuación de Zuluaga apareció en un solo medio de comunicación, en castellano, precisamente. El 2 de marzo, el anuncio de la aprobación inicial del Plan Especial para la estación de Añorga sólo apareció en dos medios de comunicación en castellano. El mismo día, el calendario fiscal se publicó en un único medio, también castellano. Resulta evidente que el Gobierno Municipal aún no ha puesto en marcha el compromiso asumido en octubre del año pasado.

Horiek horrela, EH Bilduk galdetu egin zion, batzordean, zinegotzi ordezkariari, zergatik ez duen bete Udal Gobernuak erdal hedabideetan adina publizitate euskarazko hedabideetan jartzeko konpromisoa; jarritako publizitatearen inguruko kopuruak eta diru zenbatekoak ere

En este sentido, EH Bildu preguntó en la comisión al concejal delegado por qué el Gobierno Municipal no ha cumplido con el compromiso de publicar la misma cantidad de publicidad en los medios de comunicación en euskera que la que publica en los medios de

eskatu zizkion. Zinegotzi ordezkariak adierazi zuen 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen foru arauak eta lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak agindutakoaren arabera jarduten dutela; hau da, “10.000 pertsona baino gehiagoko zuzenbideko biztanleria duten Entitateek Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapenik handienetakoa den egunkari batetan” edo “dagokion lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan ere” argitaratzen dutela. Horren emaitza da, Donostiako Udalak bere publizitate instituzionala, Euskara Zerbitzuak eta Kultura sailak egiten dutenetik harago, erdal hedabideetan egiten duela. Horregatik, errotazio sistema bat erabiltzen du Udal Gobernuak herrialdeko beste hedabideetan ere publizitate hori jartzeko; zinegotziaren arabera, Donostia “plurala” delako, eta “hedabide ezberdinak irakurtzen” direlako. Sistema horrek, ordea, ez du inola ere euskarazko hedabideen alde orekatzen erdal hedabideen alde Udal Gobernuak egiten duen hautua: batzordean emandako datuen arabera, 48.100 € ordaindu ziren 2020an, erdal hedabideetan jarritako publizitate instituzionalarengatik. Euskarazkoetan, ordea, 2.000 € besterik ez ziren erabili. Horren azalpen bat da, pandemiaren aitzakiatan, 2020ko martxotik aurrera, Udal Gobernuak bertan behera utzi izana aipatu errotazio sistema hori. Horrez gain, ordea, koska dago batzuetan eta besteetan kontratatzen den publizitate modulu kopuruaren artean. Erdarazko hedabideetan publizitatea bi hizkuntzetan argitaratzen denez, modulu gehiago ordaintzen ditu Udalak. Hori, jakina, euskarazko hedabideen kaltetan gertatzen da, baina horretarako ez dago hobekuntza irizpiderik.

comunicación en castellano. También le solicitamos las cifras y los importes relativos a la publicidad insertada en los medios. El concejal delegado señaló que han actuado conforme a la Norma Foral 11/1989 de Haciendas Locales de Gipuzkoa y a la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, es decir, que aquellas Entidades con población de derecho superior a 10.000 habitantes deberán publicar en un diario de los de mayor difusión del Territorio Histórico de Guipúzcoa o en el diario o diarios de mayor difusión en el mismo. El Ayuntamiento de San Sebastián, más allá de lo que hagan el Servicio de Euskara y el Departamento de Cultura, realiza su publicidad institucional en medios de comunicación en castellano. El Gobierno Municipal utiliza un sistema de rotación para difundir esa publicidad en otros medios de comunicación del territorio, ya que, según el concejal, San Sebastián es “plural” y sus habitantes leen “distintos medios de comunicación”. Este sistema, sin embargo, no guarda un equilibrio a favor de los medios de comunicación en euskera con respecto a la elección del Gobierno Municipal hace a favor de los medios de comunicación en castellano: según los datos aportados en la comisión, en el año 2020 se abonaron 48.100 € por la publicidad institucional en los medios de comunicación en castellano. En el caso del euskera, sin embargo, sólo fueron 2.000 €. Una explicación de ello es que, con la excusa de la pandemia, a partir de marzo de 2020, el Gobierno Municipal ha abandonado dicho sistema de rotación. Además, existe una diferencia entre el número de módulos publicitarios contratados en uno y en otro caso. Al publicarse la publicidad en ambos idiomas en los medios de comunicación en castellano, el Ayuntamiento paga más módulos. Por supuesto, esto se produce en detrimento de los medios de comunicación en euskera, pero para ello no hay criterios de mejora.

Hedabide Agentziaren kontratu berria martxoaren 9an onartu du Udal Gobernuak, eta, zinegotziak esandakoaren arabera, aurrerantzean bai beteko da publizitate espazioak euskarazko eta gaztelaniazko hedabideetan kontratatzeko, iaz, abuztuan, hartutako erabakia.

El nuevo contrato de la Agencia de Medios de Comunicación ha sido aprobado por el Gobierno Municipal el 9 de marzo y, según ha señalado el concejal, en adelante sí que se cumplirá el acuerdo adoptado el pasado año, en agosto, para la contratación de espacios publicitarios en los medios de comunicación en euskera y castellano.

EH Bilduren ustez, funtsezkoa da Donostiako Udalak euskarazko hedabideei adieraztea erdal hedabideei adinako begirunea, eta erdaldunekiko trataera profesional berarekin jardutea euskarazkoekin. Areago, argi adierazten dugu euskarazko hedabideetan publizitate instituzionala jartzeko beharkizuna ez dela eratortzen pluraltasunaren irizpidetik bakarrik, baizik eta bi hizkuntza ofizial dituen lurraldeko hiztun komunitate euskaldunari zerbitzu publiko berberak emateko obligaziotik ere. Hain zuzen ere, alderdi horrek nabarmentzen du tokiko hedabideek duten garrantzia estrategikoa hizkuntza gutxituen eta, oro har, jatorrizko hizkuntzen erabilera indartzeko eta berreskuratzeko prozesuetan. Alde horretatik, EH Bilduk aurreratzen du ekimen bat abiatuko duela udalez gaindiko erakundeetan, tokiko erakundeen publizitate instituzionalaren nolakoa zehazten duten araudiek kontuan har dezaten bi hizkuntza ofizial izatetik eratortzen den beharkizun hori.

EH Bildu considera fundamental que el Ayuntamiento de San Sebastián muestre a los medios de comunicación en euskera el mismo respeto que a los medios de comunicación en castellano, y que dé el mismo tratamiento profesional a unos y otros. Es más, señalamos claramente que la obligación de difundir publicidad institucional en los medios de comunicación en euskera no se deriva únicamente del criterio de pluralidad, sino de la obligación de prestar los mismos servicios públicos a la comunidad vascoparlante de un territorio con dos lenguas oficiales. Este aspecto destaca la importancia estratégica de los medios de comunicación locales en los procesos de revitalización y recuperación del uso de las lenguas minorizadas y, en general, de las lenguas originarias. En este sentido, EH Bildu avanza que va a poner en marcha una iniciativa en las instituciones supramunicipales para que las normativas que definen cómo han de hacer publicidad institucional las entidades locales tengan en cuenta este requisito derivado de la existencia de dos lenguas oficiales.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau egiten du:

MOZIOA

Es por ello por lo que el concejal abajo firmante presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL:

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari bilera egin dezala hiriko eta herrialdeko euskarazko hedabide nagusietako ordezkariekin eta euskarazko hedabideen ordezkari den Hekimen erakundearekin,

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a celebrar una reunión con las y los representantes de los principales medios de comunicación en euskera de la ciudad y del territorio, así como con la

Hedabideen Agentzia berriak erabiliko dituen irizpideak azaltzeko, eta euskarazko hedabideek izan ditzaketen zalantzak argitzeko eta beraien eskaerak jasotzeko.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari gaztelaniazko hedabideetan adina publizitate espazio kontratatu ditzala hiriko eta herrialdeko euskarazko hedabideetan, bi hizkuntza ofizial izanik, mezuak bi hiztun komunitateri helarazi behar dizkiola kontuan izanik.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari urratsak egin ditzala HAKOBA egituran, tokiko erakundeen publizitate instituzionalaren nolakoa zehazten duten erkidegoko eta lurralde historikoetako araudiek kontuan har dezaten bi hizkuntza ofizial izatetik eratortzen den beharkizuna, gaztelaniazko hedabideetan adina publizitate espazio kontratatu dadin euskarazko hedabideetan.

Donostian, 2021eko martxoaren 18an

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

entidad Hekimen, representante de los medios de comunicación en euskera, para explicar los criterios que utilizará la nueva Agencia de Medios de Comunicación, resolver las dudas que puedan tener los medios de comunicación en euskera y atender sus solicitudes.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que contrate tantos espacios publicitarios en los medios de comunicación en euskera de la ciudad y del territorio como lo hace en los medios de comunicación en castellano, puesto que, habiendo dos lenguas oficiales, los mensajes deben llegar a las dos comunidades de hablantes.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a dar pasos en la estructura HAKOBA para que las normativas autonómica y la de los Territorios Históricos que determinan cómo debe ser la publicidad institucional de las entidades locales tengan en cuenta el requisito que se deriva de la existencia de dos lenguas oficiales, de modo que se contrate en los medios de comunicación en euskera tantos espacios publicitarios como en castellano.

San Sebastián, 18 de marzo de 2021

Zigor Etxeburua Urbizu,
concejal del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Zigor Etxeburua Urbizu jaunak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak eta Jon Insausti Maisterrena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Zigor Etxeburua Urbizu, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi y D. Jon Insausti Maiseterrena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**6. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0**

**6. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0**

**6. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0**

---------------

**II.2.7. Kontrol Mozioa., Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, Donostia Oinez programari buruzkoa.**

“Haizea Garay Gallastegui Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. Artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, LURRALDEAREN GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEAK hil honetan izandako bileran Donostia Oinez programari buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Gobernu Batzarrak Hiriko Larrialdi Klimatikoaren Deklarazioa onartu zuenetik urtebete igaro da, eta beharrezkoa da Deklarazioan jaso ziren proposamenei buruz emandako pausoak eta horien garapen-kronograma jakitea; izan ere, Deklarazioan adierazi bezala: “Larrialdi klimatikoa izatea adierazteak konpromiso politiko benetako eta lotesle batzuk betetzea eskatzen du, oraingoak baino askoz ere asmo handiagokoak, eta baita krisi honi aurre egiteko izan behar diren baliabideak jartzea ere”.

Deklarazioak honako hau ere esaten zuen: “Larrialdi-egoerak, izan ere, beste era batera bideratzea eskatzen du gure Udalak eta gure hiriak dituen baliabideak, klima-krisiari eta hark dakartzan arazoei aurre egingo badiegu.”

Egungo aurrekontu proiektua aurkeztuta, ikusi dugu ez dagoela berariazko kontu sailik

**II.2.7. Mocion de control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa al programa Donostia Camina.**

“Haizea Garay Gallastegui, concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL tras la interpelación correspondiente en la COMISIÓN DE DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO del presente mes relativa al Programa Donostia Camina.

JUSTIFICACIÓN

Transcurrido un año desde la aprobación en Junta de Gobierno Local de la Declaración de Emergencia Climática en la ciudad, es necesario saber los pasos dados en relación a las propuestas que se incorporaron a la Declaración y su cronograma de desarrollo, ya que, tal y como señalaba la Declaración: “Declarar la emergencia climática implica asumir el cumplimiento de compromisos políticos reales y vinculantes, mucho más ambiciosos que los actuales, con la consiguiente asignación de recursos para hacer frente a esta crisis.”

Asimismo, la Declaración planteaba que “un estado de emergencia implica redirigir los recursos disponibles de nuestro Ayuntamiento y nuestra ciudad para afrontar la crisis climática con los problemas asociados que conlleva”.

Presentado el actual proyecto de presupuestos, no hay partidas específicas para

adierazpenari lotutako jarduera proposamen jakinetarako. Esaterako, ez dago kontu sailik Donostia Oinez programa abian jartzeari buruzko proposamenerako.

Hil honetako batzordean, Mugikortasuneko zinegotzi ordezkariak, Donostia Oinez programa ezartzeko kronogramari buruz galdetu ziotenean, jakinarazi zuen beste Hiri Mugikortasun Jasangarriko Plan bat behar zela, Larrialdietarako Deklarazioan jasotako mugikortasun-proposamenak biltzeko. Dokumentua prestatzen ari dira, eta urte bukaera arte ez omen da eskuragarri egongo. Orduan hasiko dira hainbat eragilerekin batera lantzen.

Kontuan hartuta 2023an Donostiak emisio gutxiko eremu bat eduki beharko duela, lehentasunekotzat jotzen dugu ahalik eta azkarren abian jartzea Donostia Oinez Programa, ohitura eta erabileren aldaketa bizkortzeko eta emisioak murrizteko, bizi dugun egoera kritikoari lehenbailehen erantzun ahal izatearren.

Hori dela eta, epeak luzatzen ari direnez eta Larrialdi Klimatikoaren Deklarazioa egin zenetik azken urtean aurrerapenik egon ez denez, honako hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari aurtengo lehen seihilekoan abian jar dezala Donostia Oinez programa.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari aurten garatzeko Larrialdi Klimatikoaren Deklarazioan mugikortasun jasangarriaren inguruan

las propuestas concretas de actuación unidas a la Declaración. En concreto, la relativa a la puesta en marcha del Programa Donostia Camina.

En la comisión del presente mes la concejala delegada de Movilidad al ser interpelada sobre el cronograma de implantación del Programa Donostia Camina informó que era necesario un nuevo PMUS (Plan de Movilidad Urbana Sostenible) para incorporar las propuestas de movilidad incorporadas a la Declaración de Emergencia. El documento según informó se está elaborando y no estaría disponible hasta final de año, momento en el que lo empezarían a trabajar con diferentes agentes.

Teniendo en cuenta que en 2023 Donostia va a tener que tener una zona de bajas emisiones, consideramos que es prioritario acelerar la puesta en marcha del Programa Donostia Camina que permita acelerar la transformación de hábitos y usos, así como una reducción de las emisiones de modo que se responda de forma urgente a la situación crítica en la que estamos.

Por ese motivo, viendo que los plazos se dilatan y que no ha habido avances en el último año desde la Declaración de Emergencia Climática, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a poner en marcha en el primer semestre de este año el Programa Donostia Camina.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a desarrollar a lo largo de este año las propuestas en materia de movilidad sostenible

adostutako proposamenak, hartutako konpromisoak bete ahal izateko.

acordadas en la Declaración de Emergencia climática al objeto de poder cumplir con los compromisos adquiridos.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Larrialdi Klimatikoaren Deklarazioan onartu bezala, eskura dauden udal baliabideak beste helburu batzuetara bidera ditzala, krisi klimatikoari aurre egiteko.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal, tal y como aprobó en la Declaración de Emergencia Climática, a redirigir los recursos municipales disponibles para hacer frente a la crisis climática.

4. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari kronograma bat aurkez dezala 2023an hirian emisio gutxiko eremu bat ezartzeko behar diren neurriak garatzeko .

4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a presentar un cronograma de desarrollo de las medidas necesarias para la implantación en 2023 de una zona de bajas emisiones en la ciudad.

5. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari GI-20 errepidea Marrutxipin lotzeko proiektua geldiaraz dezala, mugikortasun jasangarriaren arloko Larrialdi Klimatikoaren Deklarazioaren proposamenaren aurkakoa delako.

5. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a paralizar el proyecto de enlace la carretera GI-20 en Marrutxipi por ser contrario a la propuesta de Declaración de Emergencia Climática en materia de movilidad sostenible.

Haizea Garay Gallastegui,
Elkarrekin Donostiako zinegotzia”.

Haizea Garay Gallastegui
Concejala de Elkarrekin Donostia”.

Eztabaida hasita, Haizea Garay Gallastegui andreak, Pilar Arana Perez andreak eta Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras D.ª Haizea Garay Gallastegui, D.ª Pilar Arana Pérez y D.ª Garbiñe Alkiza López de Samaniego, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**7. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0**

**7. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0**

**7. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 24 – (10) EAJ-PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 - PP**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 24 – (10) EAJ-PNV, (6) EH BILDU, (5) PSE-EE, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 - PP**
**ABSTENCIONES: 0**

**7. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**

**AHO BATEZ.**

**UNANIMIDAD.**

**7. KONTROL MOZIOAREN 5. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 5 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 - ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 - ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

---------------

**II.2.8. Kontrol mozioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, Emakumeen Etxean COVIDek duen eraginari buruzkoa.**

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, COVID-19aren krisiak Emakumeen Etxean duen eraginari buruz, Udalbatzan azter dadin. Mozioa urtarrilaren 11n Pertsonentzako Zerbitzuan Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Udalbatzak, 2020ko ekaineko osoko bilkuran, aho batez onetsi zuen EH Bilduk aurkeztutako kontrol mozio bat, 2. puntuan hauxe zioena: “Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio txosten bat egin dezala muga horrek Emakumeen Etxek jardueretan izan dezakeen eraginaz, eta muga horrek

**II.2.8. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, en relación al impacto del COVID en la Casa de las Mujeres.**

“Reyes Carrere Zabala, concejala del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en pleno en relación al impacto de la crisis provocada por el COVID en la Casa de las Mujeres. La moción de control es consecuencia de la interpelación presentada en la comisión de Servicio a las Personas el pasado 11 de enero.

JUSTIFICACIÓN

El pleno de junio de 2020 aprobó por unanimidad, a instancia de EH Bildu, una moción de control cuyo punto 2 decía lo siguiente: “El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que realice un informe que refleje qué actividades de la Casa de las Mujeres pueden verse

zenbat emakumeri eragin diezaiekeen azaltzeko, eta informazio hori Berdintasun Kontseiluari eta Emakumeen Etxeko Elkarteari helarazteko”.

Hamar hilabete baino gehiago igaro dira ordutik, eta hainbatetan interpelatu dugu Udal Gobernua, aho batez onetsitako mozio hura bete dezala eskatzeko, alegia: egin dezala diagnostiko bat Emakumeen Etxean dozenaka jarduera eten eta mugatu izanak haren jardueran bertan eta erabiltzaileetan nola eragin duen jakiteko.

Urriko batzordean eskatu genuen txosten hori, eta erantzun zitzaigun abenduan egongo zela eskuragarri. Baina, gure harridurarako, orduan eman zitzaigun gauza bakarra Emakumeen Etxearen ohiko urteko memoria izan zen: bertaratze datuak, erabiltzaileen profila, ordutegiak, konfinamenduaren ondorioz egindako egokitzapenak eta gerora bertaratzeko izan diren mugak… Eraginaren azterlanik ez, ordea.

Urtarrilean, berriz ere, interpelazio bat egin genion Udal Gobernuari, memoria hura sei hilabete lehenago hitzemandakoa ez zela eta. Batzordean, Berdintasuneko zinegotzi ordezkariak barkamena eskatu zuen; akatsa aitortu, eta hitzeman zuen hil horren bukaerarako egongo zela eskuragarri.

Gobernuak, otsailean, beste dokumentu bat eman zigun, baina, gure harridurarako, dokumentu hori, “COVID-19aren krisiak Emakumeen Etxean izan duen eragina” izenburua badu ere, abenduan emandakoaren kopia huts bat besterik ez da. Analisi bat izan beharrean, abenduan emandakoaren nahas-mahas bat da.

afectadas por la limitación de aforo y a cuántas mujeres les puede llegar afectar esta limitación, y a que transmita esta información a al Consejo de Igualdad y a la Asociación de la Casa de las Mujeres”.

Pasados más de diez meses, han sido varias las ocasiones en las que hemos interpelado al Gobierno Municipal, reclamando el cumplimiento de la moción, aprobada por unanimidad: que diagnostique el impacto que la suspensión y limitación de decenas de actividades por la Casa de las Mujeres puede tener en su propia actividad y en las mujeres usuarias.

Solicitamos en la comisión de octubre dicho informe, y se nos contestó que estaría disponible en diciembre. Pero para nuestra sorpresa, lo único que se nos entregó en esa fecha fue la habitual memoria anual de la Casa de las Mujeres: datos de asistencia, perfil de usuarias, horarios, adaptaciones a causa del confinamiento y porteriores limitaciones de asistencia.... Pero estudio de impacto, nada de nada.

Procedimos a interpelar nuevamente en enero al Gobierno Municipal ya que dicha memoria no respondia a lo comprometido seis meses antes. En comisión, la concejala delegada de Igualdad se disculpó, reconoció el error y se comportmetió a tenerlo disponible a finales de ese mismo mes.

Pero para nuestra sorpresa, en febrero, el gobierno nos entrega otro documento que, a pesar de llevar el título de “Impacto de la crisis provocada por el COVID-19 en la casa de las Mujeres”, no deja de ser una mera réplica de la entregada en diciembre. Lejos de ser un análisis, es un refrito de la entregada en diciembre.

Funtsean, oraindik ez dakigu COVID-19aren pandemiaren ondorioz Emakumeen Etxeko jardueretan espazio eta bertaratze aldetik ezarri diren mugek zer eragin izan duten emakume horien bizitzan; nola ari den eragiten entitate horrek jarritako helburuetan, zer ondorio izango dituen etorkizun hurbilean, zenbateraino eragingo dien etorkizuneko bertaratzeei... Eta askoz gutxiago dakigu zer neurri zuzentzaile hartuko diren urtean 35.000 emakumeri kasu egiten dien zerbitzu hori pixkanaka ahultzen joan ez dadin.

En definitiva, seguimos sin saber qué impacto han tenido las limitaciones de espacio y asistencia de las diferentes actividades de la Casa de las Mujeres, derivadas de la pandemia del COVID-19, en las vida de esas mujeres; en qué manera está afectando a los objetivos marcados por esta entidad, qué consecuencias va a tener en un futuro próximo, en qué medida va a afectar a la futura asistencia... Y mucho menos qué medidas correctoras se van a tomar para evitar el paulatino languidecimiento de un servicio que atiende a 35.000 mujeres al año.

Beste behin, Udal Gobernu hau beste alde batera begira jartzen da, Emakumeen Etxea hobetzea denean kontua. Bien bitartean, martxoaren 8 guztietan, adierazpen erraz eta hutsak egiten ditu gizonen eta emakumeen desberdinkeria borrokatzearen alde, eta azaroaren 25 guztietan, genero indarkeriaren kontra agertzen da.

Una vez más, este Gobierno Municipal mira a otro lado cuando se trata de mejorar la Casa de las Mujeres. Mientras tanto, cada 8 de marzo hace declaraciones fáciles y huecas a favor de la lucha contra la desigualdad entre hombres y mujeres, y cada 25 de noviembre se declara en contra de la violencia de género.

Ekintzen unea da, eta ez hitzen unea; gaur egungo errealitateari egokitutako estrategia feministak ezartzeko unea da; giza baliabide eta material gehiago jartzeko unea, Emakumeen Etxearen milaka erabiltzaileek aurrez aurre egin ahal izan ditzaten jarduerak.

Es momento de hechos y no de palabras; es momento de establecer estrategias feministas ajustadas a la realidad actual; es momento de dotar de más recursos humanos y materiales que permitan la actividad presencial de las miles de mujeres ususarias de la Casa de las Mujeres.

Horregatik guztiarengatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

Es por todo ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari premiaz egin dezala pandemia Emakumeen Etxearen jardueretan izaten ari den eraginari buruzko diagnostiko bat, argi adieraziko duena espazioaren muga zer ondorio izaten ari den erabiltzaileentzat, nola ari den egoera hau emozionalki eragiten, eta zer estrategia ezarriko dituen gobernu

1.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que se realice de manera urgente un diagnóstico acerca del impacto que la pandemia está teniendo en las actividades de la Casa de las Mujeres; en el que se refleje las consecuencias que la limitación del espacio está tenienda para sus usuarias; cómo les está afectando emocionalmente esta situación; y

honek, egoera honek irauten duen bitartean errealitate izan daitezen mugimendu feministaren ahalduntze eta indartze helburuak eta emakumeen eta gure hiriko desberdinkeria amaitzeko borrokan diharduten elkarteen artean sinergiak sortzeko helburuak.

Donostian, 2021eko ekainaren 18an

Reyes Carrere Zabala
concejala del grupo municipal EH Bildu".

qué estrategias va a establecer este gobierno, mientras dure esta situación, para que los objetivos de empoderamiento, fortalecimiento del movimiento feminista y generación de sinergias entre las mujeres y entre las asociaciones que luchan por erradicar la desigualdad existente en nuestra ciudad puedan seguir siendo una realidad.

San Sebastián, 18 de marzo 2021

Reyes Carrere Zabala
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

Eztabaida hasita, Reyes Carrere Zabala andreak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Jorge Mota Iglesias jaunak eta Ane Oyarbide Ochoa andreak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as, D.ª Reyes Carrere Zabala, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Jorge Mota Iglesias y D.ª Ane Oyarbide Ochoa, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0**

---------------

**II.2.9. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Morlansen erretako etxeari buruzkoa.**

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau

**II.2.9. Moción de control, presentada por el Grupo EH Bildu ,sobre la casa quemada en Morlans.**

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento

aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2021eko martxoaren 15ean Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2020ko ekainaren 26an pertsona bat Morlans auzoko etxe bateko garajean gotortu zen eta sute bat eragin zuen. Antza denez, "osasun mentaleko arazoren bat" zuen gizonak garajeari sua eman zion eta objektuak jaurti zituen. Azkenean, gizona atxilotu eta psikiatriko batera eraman zuten.

Bertako bizilagunek eta Morlanseko auzo elkarteak salatu duenez, erretako garajearen teilatuan amiantoa dago, horren arrastoak daude oraindik bertan iazko ekainetik eta haizeak jotzen duenean hautsak altxatzen ditu. Gainera, etxea jolas-parke baten ondoan dago.

Gainera, erretako garajearen gainean bizi diren jabeek azken aldian osasunean arazoak pairatzen ari direla adierazi digute. Badirudi, amiantoaz gain, errauts hondakinak direla osasun arazo horiek eragiten ari direnak.

Udalak jada izan du honen berri eta etxeko jabeei eskatu die amiantoa garbitzeko (isun bat ere helarazi zaie), baina etxeko jabeek oraingoz ezin dute horrelakorik egin, ekaineko gertaera prozesu judizialean dagoelako.

Honi buruz martxoaren 15eko batzordeetan galdetuta, zinegotzi ordezkariak erantzun zuen jabeek izan dezaketela aukera amiantoa erretiratzeko, baina prozesu hori luzatuko balitz Udalak berak egin lezakeela lan hau

Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción a la consideración del Pleno. La moción es consecuencia de la interpelación tratada el 15 de marzo en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio.

JUSTIFICACIÓN

El 26 de junio de 2020, una persona se recluyó en el garaje de una vivienda del barrio de Morlans y provocó un incendio. Al parecer, el hombre, que padecía algún trastorno de salud mental, prendió fuego al garaje y lanzó diversos objetos. Finalmente, el hombre fue detenido y trasladado a un centro psiquiátrico.

Vecinos y vecinas de la zona, así como la asociación vecinal de Morlans, han denunciado la presencia de amianto en el tejado del garaje calcinado; y es que existen restos de amianto desde junio del año pasado, y, cuando sopla el viento, *se* levanta polvo. Además, la vivienda está situada cerca de un parque infantil.

Por otro lado, los propietarios y propietarias que viven encima del garaje incendiado nos han comunicado que últimamente están padeciendo problemas de salud. Parece ser que, además del amianto, son los residuos de ceniza los que están causando estos problemas de salud.

El Ayuntamiento ya tiene conocimiento de este hecho y ha solicitado a los propietarios y propietarias de la vivienda que retiren el amianto (incluso se les ha enviado una multa), algo que, por el momento, no pueden hacer, ya que el suceso de junio se encuentra en proceso judicial.

En respuesta a la interpelación que presentamos al respecto en las comisiones del 15 de marzo, la concejala delegada respondió que los propietarios y propietarias tendrían la potestad de retirar el amianto, pero que, si este

subsidiarioki.

proceso se prolongara, el propio Ayuntamiento podría actuar de manera subsidiaria.

Hortaz, bertako bizilagunen eskaera da oraingo egoera lehenbailehen konpon dadila eta amiantoa erretiratzea, bizilagunen osasuna bermatzeko; eta bien bitartean, erretako garajetik 5 m-ra gutxi gorabehera dagoen jolas-parkea eta ingurua lehenbailehen prezintatzea eta ixtea, eta arriskuaz ohartzen duen seinalizazio egokia jartzea.

Por lo tanto, la demanda de los vecinos y vecinas es que la situación actual se solucione cuanto antes y que se retire el amianto para garantizar su salud. Mientras tanto, solicitan que se precinte y se clausure lo antes posible el parque infantil situado a unos 5 m del garaje incendiado, así como su entorno, y que se coloque una señalización adecuada que advierta del peligro.

Bestalde egokia litzateke, osasuna bermatze aldera, airearen neurketak egitea zer arrisku dagoen jakiteko, azken finean bertako bizilagunek zortzi hilabete daramatzatelako errautsen hondakinak eta amiantoa arnasten.

Por otro lado, sería oportuno realizar mediciones del aire para garantizar la salud, ya que los vecinos y vecinas de la zona llevan ocho meses respirando los restos de cenizas y amianto.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Morlansen erretako garajearen amiantoa erretiratzeko subsidiarioki jardun dezala, prozedura judiziala argitu arte, duela zortzi hilabete hasitako egoera gehiago luzatu ez dadin.

- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a actuar subsidiariamente para retirar el amianto del garaje incendiado en Morlans hasta que se resuelva el procedimiento judicial, para que no se prolongue la situación iniciada hace ocho meses.

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari amiantoa erretiratu bitartean, Morlansen erretako garajetik gertu dagoen jolas-parkea eta ingurua era egokian prezintatu dezala eta arriskuaz ohartzen duen seinalizazio egokia jar dezala.

- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que, hasta la retirada del amianto, precinte adecuadamente el parque infantil y el entorno próximo al garaje incendiado en Morlans y a que coloque una señalización adecuada que advierta del peligro.

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Morlansen erretako garajearen inguruko etxebizitzetako airearen neurketa egin dezala, bertako bizilagunen osasuna bermatua dagoela ziurtatzeko.

- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que realice la medición del aire en las viviendas cercanas al garaje incendiado en Morlans para garantizar la salud de sus vecinos y vecinas.

Donostian, 2021eko martxoaren 18an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

En San Sebastián, a 18 de marzo de 2021

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak, Haizea Garay Gallastegui andreak eta Marisol Garmendia Beloqui andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D. Markel Ormazabal Gaztañaga, D.ª Haizea Garay Gallastegui y D.ª Marisol Garmendia Beloqui, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (6) EH BILDU, (3) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (10) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0**

---------------

**ETA BILERAK BESTE XEDERIK EZ DUENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUNEKO ARRATSALDEKO ORDU BIAK ETA HOGEI ETA HAMABITAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:**

**Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS CATORCE HORAS Y TREINTA DOS MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, EL SECRETARIO, DOY FE:**

**LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:**

**IDAZKARIA: / EL SECRETARIO:**